

Zakur lasterketa ♦ 10. aldia hasiko da

Pirena, ohi bezala, Iruñera

*Zakurren elurretako lasterketa
hilaren 23an hasiko da*

Miren Iriarte / Iruñea

PIRENA aurkeztu zuten atzo Iruñean, zakur nordikoekin Pirinioetan egiten den lasterketa. Urtarrilaren 23tik otsailaren 5a bitartean hainbat herrialdeetako zakur eta kirolariak izanen dira Pirinioetan. Tramacastillan izanen da lehenengo etapa, eta La Molinan egingen dute azkena.

Pirenak hamar urte beteko ditu aurten, eta Pep Pares zuzendariak esan duenez, «elur munduan oihartzun mediatiko handiena duen lasterketa da orain».

Paresen arabera, egindako lanari esker lortu du Pirenak arrakasta; «gainera, oso irudi eta gertakari politak ikusten ahal dira zakurrek eta musher-ek Pirinioetako elurretan korrika egiten dutenean».

Urtero moduan, lasterketari hasiera emateko jaia Iruñean egingen dute. Urtarrilaren 22an parte-hartzaile guztiak bilduko dira, Iruñeko harresietako lubakietan. Bertan zakur lasterketei buruzko

erakusketatxo bat egingen dute.

Hurrengo egunean Tramacastillara joanen dira, han hasiko baita zakurren lasterketa.

Lehenengo emakumea

Pep Paresen atzoko aurkezpenean esan zuenez, aurten, lehenengo aldiz, posible da emakume bat podiumaren maila altuenera igotzea.

«Elisabeth Edland norvegiarra etorriko da aurten Pirena lasterketara; oso ona da, eta irabazteko aukerak ditu».

Paresen arabera, zakur lasterketetan ez dago emakume

erakusketatxo bat egingen dute. Hurrengo egunean Tramacastillara joanen dira, han hasiko baita zakurren lasterketa. Lehenengo emakumea Pep Paresen atzoko aurkezpenean esan zuenez, aurten, lehenengo aldiz, posible da emakume bat podiumaren maila altuenera igotzea.

200 kirolari baino gehiago izanen dira euren zakurrekin bi astez Pirinioetako elurretan lasterka.

Euskal Herriko 12 'musher'

PIRINIOETAN urtarrilaren 23tik otsailaren 5a bitartean 12 euskal partaide lehiatuko dira 14 herrialdeetako kirolarien aurka. Nafarroa, Araba, Gipuzkoa eta Bizkaiko herrialdeetako musher-ak izanen dira, beren zakurrekin. Pep Paresen esan zuenez, hemen kirol hau jende gutxi egiten duen arren, «hemengo musher batzuek lehen hiruretan sailkatzeko aukera handiak dituzte». Antolakuntzak hemengo musher-enganako estimazio

handia dutela esan zuen, gainera, Paresen. 12 kirolari joanen dira Euskal Herriko Pirinioetara: Jesus Raigoso, Javier Romero, Salvador Luque, Iker Ozkoidi, Luis Martija Bereziartua, Andoni Azpillaga, Iban Uriondo, Jose Luis Berasategi, Axen Garitano, Juan Antonio Lasa, Javier Rodriguez Valle eta Iosu Urrutia. Hori guztiak urtarrilaren 23an hasiko dute lasterketa Tramacastillako elur estazioan.



JOXE LACALLE

Atzo aurkeztu zuten, Iruñean, urte honetako Pirena zakur lasterketa.

IRUÑAKO LABRIT
PILOTALEKUTIK

FRONTOIKO
ERREGEAK
GUREAN

Gaur 18:30

NAGORE - BELOKI
vs
UNANUE - ARMENDARIZ